

Lanaren  
Konfederakunde  
Nagusia

@CGT

[www.cgt-lkn.org](http://www.cgt-lkn.org)

[rojoynegro.info](http://rojoynegro.info)



# Maiatzaren

# 1<sup>a</sup>

Iruzurrak darrai

Kalean jarraitzen dugu



## **Maiatzaren 1a: kaleak gureganatu behar ditugu**

Sistema kapitalistaren egungo krisiak 10 urte bete ditu. Sistema politiko ustel baten laguntzaz, hiritarren eta bereziki langilegoaren eskubideen lepotik, haien irabaziak handitzeko patronal handiaren, multinazionalen eta bankuen jabeen beste tresna bat besterik ez den krisialdia. Krisialdi hau iruzur handi bat besterik ez da.

Gizarte larrialdi egoeran 10 urte daramatzagu. Langabeak bakarrik ez, lana duten pertsonen %14a pobreak dira, lan kontratuen aldibaterakotasunak eta biziraupen soldatek eragindako lan kontratu mota berrien prekarietatearen ondorioz. Guzti honi gainera, hiru pentsionistetatik bat pobreziaren muga izatea eragin duen pentsioen erosteko gaitasunaren beherakada eta generoen arteko soldaten zein pentsioen pitzadura zabaldu izana gehitu behar zaio.

Orain arte eskubideak zirenak negozio bihurtzea helburu duen eraso ideologiko eta estrategiko baten aurrean gaude: hezkuntza, osasuna, pentsioak.. azken finean gu guztiona dena enpresa talde handientzat irabazi iturri bilakatzen ari da. Trukean, geurea ez den zorra, zilegia ez den eta neurri handi batean ustelkeriaren ondorio den zorra ordainduz, bankuak zein autopistak erreskatatzera behartzen gaituzte. Iruzurra egiten ari zaizkigu.

CGTtik bankuak pertsonen gaintetik daudela onartuko ez dugula diogu; CGTtik zerbitzu publikoen zati handi bat pribatizatzen eta prekarietatean murgiltzen jarraitzeari uko egiten diogu; CGTtik pentsioen sistema publikoa desegiterik ez dugu onartuko; CGTn lan erreforma berrien bitartez egunetik egunera langilegoaren eskubideak murrizterik ez dugu onartzen.

Lan ihardunaldiak murriztuz, ordu extrekin amaituz, erretiroa hartzeko adina aurreratuz, guztiok lana izateko lanaren banaketa gertatzeko ordua da. Pribatizatutako zerbitzu publikoak berreskuratu behar dira, hoiengatik eraginkortasuna bermatuz, guztiontzako benetazko gizarte babes publiko eta unibertsala eskeiniz. Gastuaren zatirik handiena krisialdi-iruzur honekin haien irabaziak handitu dituzten korporazio eta aberats handiek sostengatu dezaten, fiskalitatearen erreforma baten bitartez aberastasuna banatzea ezinbestekoa da. Iruzur eta paradisu fiskalekin amaitu beharra dago.

CGTrentzat etsipena ez da aukera bat, berriro kaleak betetzeko ordua da, inoiz baino beharrezkoagoa da CGT gizarte bidegabekeria gertatzen den egoeretan presente egotea, sistema ustel honen kontrako CGTren mobilizazio jarraia beharrezkoa da, beharrezkoak diren deialdiak luzatuz edo hoietan parte hartuz, gizarte autogestionario, antipatriarkal, ekologista, arrazakeriarik zein xenofobiarik gabeko... gizarte libertario bat lortzeko.

**IRUZURRAK DARRAI**  
**KALEAN JARRAITZEN DUGU**  
**Gora Maiatzaren 1a**